


## Nur eta Afrikarako bidaia



### Toti Martínez de Lezea

Ilustratzailea: Ivan Landa

Adin gomendatua: 8-12 urte

Bilduma: Nur euskaraz, 18

Formatua: 155 x 210 mm

Orrialdeak: 144

Koadernaketa: Paper-azala

Argitalpen data: 2024-06-06

ISBN-a: 978-84-9109-970-3

Materia: Haur literatura

### Salmenta prezioa

**15,50 €**



Nurrek Aiur ezagutu berri du, amamak Larrabetzun duen lagun baten biloba; Ingalaterran bizi da gurasoekin. Aiurren aita Afrikako herrialde batekoa da, eta Nurri toki hura bisitatzeko izugarrizko gogoia jarri zaio. Nurrek, lagun berriak eta beste hiru lagunek –Izarok, Aimarrek eta Sarek– bidaia egitea erabaki dute, Afrikako sabanan, oihanetan eta basoetan bizi diren animaliak ezagutzeko, jirafak bereziki. Eta, zenbait bider saiatu eta huts egin ondoren, lortu dute, azkenik. Halaxe, zoo batean sartu, eta bi jirafa askatu dituzte, elefante erraldoi baten laguntzaz; futboleant aritu dira, herrixka bateko festa batean dantza egin dute; puff-puffak jan dituzte, eta primeran pasatu dute.



### Toti Martínez de Lezea

Gaur egun Larrabetzun bizi da. Kukubiltxo antzerki taldearen sortzaile izan zen, eta itzulpen lanez gainera, gidoiak, hezkuntzako bideoak eta telebistarako haur saioak egin zituen, 1983 eta 1992 urteen bitartean.

1986an *Euskal Herriko lelendak* bilduma idatzi zuen. 1998 urtean argitaratu zuen bere lehenengo eleberria: *Judu-kale*. Haren ondoren etorri ziren: *Antsoren dorreak*; *Kattalin*; *Señor de la Guerra*; *Maria Galanta*, abadesa; *Ogaiztarak*; *La voz de Lug*; *La Comunera*; *El verdugo de Dios*; *Hautsi da katea*; *A la sombra del templo*; *Sorginak*; *La Brecha*; *El jardín de la oca*; *Placeres reales*; *Otalorea*; *Perlas para un collar* (Ángeles de Irisarriekin batera); *La Universal*; *Pozoia Koroari*; *Urak dakarrena*; *Egunsentiko argia*; *Enda Lur*; *Isilpean gordea*; *Esne eta ezizko lurra* eta *Amamaren grafitiak*.

Idazle emankorra da, eta gazte literaturan ere jardun du. *Erregearen mezularia*, *Ilargiaren alaba*, *Antso III*. *Nagusia* eta *Muerte en el priorato* dira horren erakusgarriak.

Haur literaturan egin du azken saiakera Nur pertsonaiarekin; liburu horretako protagonista idazlearen beraren biloban oinarritua da.

Frantsesera, alemanera, portugesez, txinerara eta errusierara itzuli dituzte bere lanak, eta hainbat komunikabidetako kolaboratzaile aritzen da.

<http://martinezdelezea.com/>